

# FUNTSEZKO ELKARTEA

Funtsezko elkarteari dagokionez, gure funtsezko elkarte herrian dauden merkatu txikiak eta handiak izango dira, hauen artean, taberna, ogidendak, frutadendak, supermerkatuak egongo dira, besteak beste: Alcampo, Eroski, Ogiberri, Irubide taberna, Elordi frutadenda...



Gure lana da, beraientzat baliozkoak edo salgarriak ez diren produktuak gure esku jartzea eta guk bitartekari lana egitea elikagai horiei bizitza bat emateko. Aliantza hauek ezinbestekoak dira gure negozioa aurrera eramateko, horrela proiektua optimizatuko dugu, kostuak murriztuz eta azpikontratazioak eginaz, baita arriskuak murrizteko ere, negozio berri batek ziurgabetasun ugari sortarazten baitu, horrez gainporrot arriskua ere gutxiagotzeko lagundu dezake. Bestetik baliabide desberdinak eskuratzeko erraztasuna emango digu aliantzak egiteak, horrek, baliabide espezifikoak, haien ezagutzak, bezero berriak eta lizenziak emango baitizkigu.